# apapasak

Lau arrain hauek beren izena daramate idatzirik, baina ur korronte batek letrak nahastu dizkie. Ordenatuko al dituzu?




tuzue letra zopa honetan, edozein norabidetan.



## PANORAMIXen otartekoak*



### Falbalaren mokadua

**Neska-mutilen bat zurekin maitemintzea nahi baduzu, presta iezaiozu Panoramixen otarteko berezi hau.**

**Osagaiak:**
- Molde ogiko bi xerra
- Birrindutako 50 gramo Gruyeres gazta
- 2 koilarakada esnegain urtua
- Intxaur muskatu pitin bat
- 30 gr. gurin, urdaiazpiko egosi xerra bat
- Arrautz bat eta gatza.

1-. Ontzi batean nahastu gazta birrindua, esnegaina eta intxaur muskatua.





2-. Ogi xerrak gurinaz igurtzi. Baten gainean, jarri urdaiazpiko xerra. Gainean gruyeres kremaren erdia igurtzi, eta ondoren jarri beste ogi xerra. Horren gainean ere geratzen den gruyeres krema igurtzi.

3-. Berotu labea 6 minutuz (KONTUZ! Horretarako, eska iezaiozu laguntza heldu bati). Sartu labean otartekoa, 4 minutuz. Bitartean, frijitu ezazu arrautz bat zartagi batean.





4-. Azkenik, atera otartekoa labetik, jarri gainean arrautza, eta emaiozu maite duzunari. Ezingo du ezetzik esan.

Oharra: ERNE! LABANA erabiltzean, heldu baten begiradapean aritu zaitez.

*Ttarttaloren *Otarteko paregabeak, Panoramixek Galiako haur bizkor eta mokofinentzat aukeratuak* liburutik hartuak.

**ERANTZUNAK • 1.- Asmakizuna:** (Lehenik Oier eta Kalixto igaro ziren. Oier itzuli egin zen, eta orduan aita bakarrik pasa ze
Kalixto itzuli zen gero. Berriro bi mutilak igaro ziren, eta Oier osabarengana itzuli zen. Orduan osaba igaro zen, bakarrik. Kalix
Oierren bila itzuli zen, eta gero biak aita eta osabarengana joan ziren.) **2.- Arrainen izenak:** (Legatza, berdela, zapoa eta antxo
**3.- Hizkizopa:** (Automobila, autobusa, trena, hegazkina, ontzia, bizikleta, gurdia eta trizikloa.)